

ORIENTAZIOAREN EREMUA

1. Zertan lan egiten dute orientatzaileek?	2
1.1. Zein da hezitzaileen orientatzaile-funtzioa	2
1.2. Zein da hezitzaileen orientatzaile-funtzioa?	2
2. Orientazio-eredu baterantz	3
2.1.- Orientazio-ereduak	3
2.1.1.- Orientazioaren hiru eredu oinarrizkoak	3
2.1.2. - Zertzelada historiko labur batzuk:	
Lan-eremuak eta testuinguruak zabaltzea	5
2.2.- Oinarrizko printzipioak eta eginkizunak	7
2.2.1. Orientazioaren printzipioak	7
2.2.2.- Orientazioaren eginkizunak	8
2.2.2.1.- Laguntza-funtzioak:	
aholkularitza eta kontsultak.	9
2.2.2.2. Ebaluazio-funtzioak.	11
2.2.2.3. Errazteko eta koordinatzeko funtzioak	12
3. Zer da Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa?	13
4. Bibliografia	14

1.- Orientazioaren profesionalizazioa

1.1.- Zertan lan egiten dute orientatzaileek?

Orientatzaileen lan-eremuak askotarikoak izan daitezke oso, baina profil profesional onartuenak Hezkuntza Formalaren esparruan sortu dira, indartsu sortu ere, eta han hedatu dira. Hala ere, profil profesionalak ezin ditugu murriztu eskola-eremura. Orientatzaileek gizarterako hezteko programak izaten diren testuinguru guztietan lan egin dezakete, dela instituzioen barruan, dela elkarte, enpresetan, dela testuinguru formal zein ludikoetan.

Nolanahi ere, kontua da profil jakin batzuek garabide handiagoa dutela legez onartuta eta araututa daudelako. Hain zuzen ere horretxegatik, eskola-eremuko orientazioa eta goi-mailako ikasketetarako orientazioa dira garapen handieneko eremu bi. Profirik zehaztuenek hezkuntza-sistema formalarekin dute zerikusia, batez ere Lehen Hezkuntzan (“aholkularia”ren figura legala), eta Bigarren Hezkuntzan (“orientatzailea”ren figura legala, orientazio-taldeak ahaztu gabe. Neurri txikiagoan, badira Unibertsitatean lan egiten duten orientazio-profesionalak ere (Orientazio Zerbitzua). Hezkuntza-sistematik kanpo, gizartean leku bat eta agerbide bat izan duen Orientazioaren profesionala lanbiderako orientatzailea da, enplegu-zerbitzu publikoen barruan (Sánchez, 2010).

1.2.- Zein da hezitzaileen orientatzaile-funtzioa?

Hezitzaile guztiek dituzte orientatzaile-funtzioak, batez ere indartu nahi diren funtzioetan eredu izateari dagokionez, batetik, eta, bestetik, erreferentziazko norbait –hau da, kontrola ez ezik laguntza ere emango duen norbait– izateari dagokionez.

2.- Orientazio-eredu baterantz

2.1.- Orientazio-ereduak

2.1.1.- Orientazioaren hiru eredu oinarritzkoak

Interbentzio jakin baten ikuspuntutik, ereduak "ekintzarako gida" dira, eta eredu teorikoetan oinarritzen dira, batez ere eredu psikologiko eta pedagogikoetan. Ereduaren funtzioa ekinbide praktikoak proposatzea da. Alde horretatik, "orientazio-ereduek jarduteko prozesu eta prozedura zehatzak eskaintzen dituzte, eta haien funtzionamenduaren baliagarritasuna enpirikoki berresten da ikerkuntza zientifikoaren bitartez" (Bisquerra, 1998: 55).

Orientazioaren hiru eredu oinarritzkoak eredu klinikoa, programen eredu eta kontsulta-eredua dira. Gaur egun, hala ere, bada adostasun bat eredu mistoak beharrezkoak direlako iritziaren inguruan.

Eredu klinikoa –"Counseling" ere deitzen zaio– aholkularitza-eredu bat da, eta laguntza-eskaera batek jartzen du martxan: une horretan, hainbat jarduerak osatutako prozesu bat jartzen da martxan; hasteko, diagnostiko bat, tratamendurako oinarria. Elkarrizketa eta proba psikometrikoak dira orientaziorako diagnostikoaren prozesuaren bi osagai gakoak. Oro har, orientatzaileen interbentzioa, haien zeregina eredu horren arabera eratzen den bezala, puntuala eta banakakoa da, errendimendu-arazoak edo jokaeran gorabeherak agertzen direnean. Jotzen da "adituak" direla, arazoaren kausei eta izan litezkeen konponbideei buruz aholku ematen dutenak.

Joan den mendeko 70eko hamarralditik aurrera, alternatiba gisa planteatu ziren programa-eredua eta kontsulta-eredua, eta gerora bi ereduotatik eredu mistoak agertu ziren, zeinetan eredu batak eta besteak pisu gehiago edo gutxiago izan zezaketen.

Programa-ereduak, diagnostikoaz eta interbentzio puntualaz harago, jarduera jarraitu bat eskaini nahi du, beharren eta testuinguruen analisitik

abiatuta. Beharren analisia da abiapuntua jarduerak planifikatzeko, egiteko eta ebaluatzeko prozesu osoa zuzenduko duten helburuak ezartzeko. Programa-ereduak ikuspegia zabaltzen du, ez bakarrik jo-puntuan dituen subjektuei buruz, baita lan egiteko testuinguruei eta parte hartzen duten profesionalei buruz ere. Batetik, programa-ereduak kontuan hartzen du ez bakarrik arazoak dituzten ikasleekiko interbentzio banakakoa, baita taldekako interbentzioa ere, testuingururik erakoena baita prebentzioa lantzeko, dela alderdi kognitibotik, dela afektibotik, dela bokazionaletik. Orobat, pisu handia du interbentzioan parte hartzen duten profesionalen rola (irakasleak, gurasoak, gizarte-hezitzaileak...); eta horietako batzuk dira, zuzen nahiz zeharka, orientatzaileak, dinamizatzaile diren aldetik. Bestalde, lan-testuinguruak zabaldu egiten dira, eta esparru formala eta ez-formala hartzen dituzte. Hezkuntza-instituzioen barruko testuinguru tradizionalaz –eskolaz– gainera, planteatzen dira, halaber, erkidego-testuinguruak eta giza baliabideei dagokienez erakundeetan (enpresetan) ematen den orientazioa, bi adibide ematearren.

Kontsulta-ereduak orientatzaileek aholkulari gisa duten rola azpimarratzen du, aholkularitza puntualaz harago. Profesionalen arteko harremanen eredu bat planteatzen du. Kontsulta-eredutik, orientatzaileek beste hezitzaile batzuei laguntzea dute rol nagusizat, beharrak elkarrekin zehaztuz eta ondorioz ekintza- eta segimendu-planak planteatuz. Bestalde, eredu horretatik, orientatzaileen rola zabaldu egiten da; izan ere, maiz bitartekari gisa jardun behar izaten dute kezka eta zailtasunei aurre egiteko, dela errendimenduaren arloan, jokaera desorekatuenetan, talde-harremanetan, eta abar. Aholkularitza-funtzioez gainera, beste funtzio batzuk agertzen dira: prestakuntza, koordinazioa, eta abar.

2.1.2. Zertzelada historiko labur batzuk: Lan-eremuak eta testuinguruak zabaltzea

Beraz, Orientazioa diziplina konplexu eta multidiziplinarra dela esan dezakegu. Orientazioak mende bat baino ez du ezagutzen diziplina gisa, eta denbora horretan guztian eskolarekin izan dituen elkarrekintzek hainbat momentu bizi izan dituzte.

1920 eta 1940 urte bitartean, Eskola Berriaren eragina Orientazioarengan nabaritzen da, eskolarekiko bira garrantzitsu bat emanez. “ikuspegi asko izan arren, guztiak ados daude eskolaren paper garrantzitsuena ikasleen hezkuntza pertsonalean, sozialean eta moralean dagoela”. Hala ere, joera horrekin bukatu zuten oinarrizkora itzultzeko eskaera egiten zuten mugimendu kritikoez eta planteamendu positibisten hedapenak. Gainera, ez dugu ahaztu behar Eskola Berria gutxi hedatu zela.

Bigarren mundu-gerraren ondoren Orientazioari heldu zitzaion “krisia” 50eko eta 60ko hamarkadetan mantendu zen. Eskolako testuinguruan, Orientazioa, batez ere, ikaskuntza-zailtasunez eta doikuntza pertsonalaz edota bokaziozko orientazioaz arduratzen da. Garai horretan, Orientazioa “zerbitzu” gisa ikusteko joera dago edo, eredu konduktualaren nahiz humanistaren ikuspegitik, jasaten ditugun krisiei erantzuna ematen diena da orientazioa. Bi ikuspegi horiek ez daude ados erabiltzen diren tresna eta teknikekin (Counseling-a eta Jokaera Moldaketa hurrenez hurren) baina, hala ere, izaera zehatza duen esku-hartzea dute biek. Orientazio-prozesua, proba psikometrikoen nahiz bakarkako elkarrizketen bidez, aholkua funtsatzeko oinarrizko puntua da garai horretan. Orientazioaren oinarrizko printzipio gisa garatzen da sarritan aholkua.

60ko hamarkadatik aurrera eta, batez ere, 80ko hamarkadan, Orientazioak bere izaera hezitzailea aldarrikatzen du berriro. Positibistak ez diren paradigmen eraginei esker agertu zen aldarrikapen hori. Heziketan eta

ikuspegi sistemikoetan, paradigma kritikoek ordura arte aski ez ziren Orientazioaren praktika eta teoria berritzeko nahia pizteko balio dute. Orientazio Hezitzailearen ikuspegiaren bilakaera bi hamarkadaren ondoren ematen da. Bi hamarkada horietan, eskolan planteatzen diren arazoei aurre egiteko, ordura arte zeuden joera psikologizatzaileek eraginkortasunik ez zutela ikusi ahal izan zen. Hori argi ikusten da egunerokotasunean. Hala ere, “Orientazioaren praktikan hori gertatzen bada, diziplina pedagogiko horren teoriaren eremuan arazo berdinak edo handiagoak agertzen ari dira: printzipioek, axiomek, auresuposizio antolatzaileek, esku-hartze eskemek... beharrian orientatzaileei aurre egiteko eraginkortasunik ez dutela konturatzen hasi gara”. (Alvarez Rojo, 1987: 20). Orokorrean, beste diziplina pedagogiko batzuk bezala, Orientazioa beste diziplinen ezagutzetara (esate baterako, ezagutza psikologikoetara, egunerokotasunera) egokitzeko arazoarekin aurkitzen dela argi dago eta, horrekin bukatzeko, planteamenduak berregokitzea eta era egokiago batean antolatzea da egokiena.

Ematen den enfasi aldaketak, Hezkuntza-ikuspegi eta Orientazioaren ikuspegi berri bat dakar. Ikuspegi berri hori, zerbitzu-ikuspegiaren aurrean, programen bidezko esku-hartze gisa ezagutzen eta hedatzen da. Testuinguru horretan garatzen da Orientazioa, nabaria denez, bere edukien oinarritzko lerroetan izugarritzko aldaketa bat jasanda. Karrerarako Orientazioari eta Hezkuntza-planteamenduei bidea zabaltzen die Bokaziozko Orientazioak eta, Orientazio Pertsonalak, berriz, Hezkuntza Soziopertsonalari. Aldi berean, izugarritzko indarra hartzen dute Familiako Hezkuntzak eta Orientazioak eta Gizarte-Hezkuntzak eta -Orientazioak. Esan bezala, emandako aldaketa nabaria da.

Arlo akademikoari dagokionez: Jokabidezko parametroak dituen ikasteko teknikan egotetik, trebetasun eta ezagutza intelektual guztien hobekuntzarako beharrezkoak diren trebetasun kognitibo eta metakognitiboen multzo osoa balioestera igarotzen da indarra edo enfasia.

Orientazio Pertsonala: izugarritzko garrantzia hartzen du, eta bere erreferentzia-puntuak aldatzen ditu. Eginkizun nagusi gisa aholkua baztertzeko duenean eta garapen integrala lortzeko esku-hartze prebentiboa erabiltzen hasten denean, Hezkuntza Soziopertsonalaren diziplinarekin lotura izateko beharrezkoa den zubia eratzen du. Garapen “sozial eta pertsonala” bultzatzen duten programetara itzultzen da Orientazioa zenbait autoreren ustez eta, beste batzuen ustez “hezkuntza afektiboaren” inguruko programetara; esate baterako, Balioen argitzea, arrazonamendu moralaren garapena, gatazken konponbidea eta bakea. Aldaketa hori nabaria da, Orientazio-Eskuliburuaren aurkibideak gainbegiratu eta aurreragoko hamarkadetakoekin alderatuz.

Azkenik, eskolako azken zikloetan lanpostu bat aukeratzeko egiten ziren esku-hartze zehatzak egitetik hezkuntza-prozesu osoa hartzen duten esku-hartzeak egitera igaro da *profesionala dena; hots, Bokaziozko Orientazioaren bereizgarria dena*. “*Karrerarako Orientazioa edo/eta Hezkuntza*” deiturikoa egituratzen da. Orientazioaren printzipioen filosofiarekin sendotzen da Karrerarako Orientazioaren ikuspegi hori. Karrerarako Orientazioak gizabanakoaren alderdi emozionalen, sozialen, eta intelektualen “garapena” eta karreraren “garapena” estimulatu nahi ditu, batez ere, gaur egunerako nahiz etorkizunerako egokitzapen eta doikuntza egokia eman ahal izateko horrela. Hezkuntza Orientazioa

2.2.- Oinarrizko printzipioak eta eginkizunak

2.2.1.- Orientazioaren printzipioak

Oro har, elkarren artean estuki erlazionatuta dauden oinarrizko hiru printzipiotan oinarritu behar du: prebentzioa, garapena eta aktibazioa.

Arazoak ageri ondoren, horiek azalera zeari dagokio *prebentzio-printzipioa*, eta bai halaber arazo horiek murriztu beharrean, hobetu beharreko alderdiak antzemateari ere. Hainbat prebentzio-maila bereizi beharko genituzke: lehen mailakoa, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa.

Prebentzioaren maila gorena adierazten du lehen mailako prebentzioak, eta klase-talde osoari zuzentzen zaio; horren bidez, trebetasunak garatzea sustatu nahi du. Adibidez, Curriculumaren bidez nahiz tutoretzetan landutako gizarte-trebetasunen programetako gizarte-trebetasunak balioestea. Bigarren eta hirugarren mailako prebentzioak, mailak maila, zailtasun bat identifikatu zaien pertsoneri zuzentzen zaizkie, behar bereziei aurre egiteko asmoz.

Diagnostikoa pertsonaren garapen osoa arlo bakarrera murriztu gabe erabiltzea ahalbidetzeari dagokio *garapenaren printzipioa*. Hezkuntza-erakundeei dagokienez, pertsona arlo intelektualera ez murrizteko beharra nabarmentzen dugu, eskola berriaren printzipioen ildoari jarraituz.

Diagnostikoa testuinguru naturaletan eta harreman zuzena dutenekiko elkarlanean egiteari dagokio *aktibazio-printzipioa*, kontuan hartuz, batez ere, ebaluazioak esku-hartzearen zerbitzupuan egon behar duela.

2.2.2.- Orientazioaren eginkizunak

Orientatzaileak, arautu gabeko Hezkuntzaren profesional gisa, ahalik eta garapen onena izan dezaten pertsoneri eta erakundeei laguntzen saiatzen dira – erakundeetako hezkuntza-testuinguruetan nahiz bestelako testuinguruetan– eta, horretarako, hainbat funtzio garatzen dituzte. Orientatzeko programa ulerkor batek bere baitan hartzen ditu aholkularitza-, kontsulta-, ebaluazio- eta koordinazio-funtzioak. Guztiek harreman estua dute; izan ere, aholkularitza eta kontsulta ulertzeko moduak diagnostikoari eta dituzten harremanei eragingo die.

2.2.2.1.- Laguntza-funtzioak: aholkularitza eta kontsultak.

Orientatzeko funtzioak eta moduak eztabaidagai izan dira eta dira Orientazioaren alorrean. Orientazio-profesionalaren eginkizuna aldatu egiten da "laguntza" ulertzeko moduaren arabera.

Zentzu tradizionalan, eskatzen duen talde nahiz pertsona bati eskainitako zuzeneko laguntza gisa ulertzen dute aholkularitza (counseling) eta, sarritan, norbanakoaren arazoak –gehienetan– nahiz taldeko arazoak –gutxiagotan– konpontzeari lotu izan zaio. Laguntza horrela ulertzen denean, psikoterapiatik oso gertu dago aholkularitza; horren ondorioz, Orientabidearen eta Psikoterapiaren mugei buruzko eztabaida luzea izan da, zeina oraindik ez baita bukatu.

Hala ere, batzuetan, bestelako lanak egiteko eta hobetzeko prozesuak errazteko eskatzen dugu orientatzailearen laguntza (guidance), eta ez balizko arazoren bati –norbanakoarena nahiz taldekoa– konponbidea emateko. Ildo horretatik, informazioa emateko, programa zehatzak erabiliz garapenerako eta aurreikuspenarako prestakuntza-planetan laguntzeko nahiz bitarteko moduan bakarrik aritzeko eskatzen diogu laguntza. Kasu horietan guztietan, ez da beharrezkoa arazo bat egotea orientatzaileak parte har dezan. Gai horiek dira, zehazki, orientatzailearen eginkizuna aldatu dutenak, aholkulari terapeutiko izatetik aholkulari izatera igaroz.

Bi pertsonak edo gehiagok asmo bat zehazteko, helburuak eta estrategiak finkatzeko eta plan bat aurrera eramateko ardurak banatzen dituzten harreman moduan uler dezakegu *orientatzaileek aholkulari gisa duten funtzioa*. Funtzio hori berria da *counseling* funtzioaren aldean, baina, azken urte hautan arretaz landu ondoren, hainbat forma har ditzake.

***Informazio-funtzioak.** *Orientatzaileek* erakundeetan bertan edo bestelako erakundeetan baliabideak nahiz komunitateko zerbitzuak bila ditzaten errazten dute. Horretarako, zerbitzu bereziei nahiz finantza-laguntzei buruzko informazioa, karrera garatzeko aukerei buruzko informazioa, eta abar, eskain ditzakete, besteak beste. Azken batean, informazioa edo iradokizunak ematea, edo, besterik gabe, hirugarren baten laguntza lortzeko bitarteko gisa jokatzeko izango litzateke. Izan ere, bakartuta lan egin ezin denez, oso garrantzitsua da komunitatean eskaintzen dituzten zerbitzuen berri izatea (osasun-zerbitzuak, psikiatria-tratamendurako zentroak, familia-orientabidea, jolas-programak), zeharkakoak nahiz zuzenak diren harremanak finkatuz.

***prestakuntza-funtzioak.** Horrela, hirurogeiko hamarkadaren aurretik, batez ere, ikasle, familia, irakasle eta abarrei zuzendutako hobekuntza-programak eskaintzen zituzten. Kontsulta-funtzioetan eginkizun nabarmena du Diagnostikoak, beharrak eta hobetu beharreko alderdiak balioesten.

Erakundeetako hezkuntza-testuinguruetan orientabideari emandako eginkizuna nabarmentzekoa da; hau da, hezkuntza psikologiko edo soziopertsonala garatzeko programak eman zaizkio. Eskola maila bakoitzerako helburuak izango dituen programa bat egongo litzateke eskolako curriculumaren baitan; klasearen heziketan sartzen da hori, irakasleek eta orientatzaileek egindako ahalegin laguntzaileari esker. Eskolaz kanpoko testuinguruetan ere, ikusiko dugu heziketak eginkizun garrantzitsua duela. Adibidez, familia-eskolak osasun mentalaren testuinguruetan duen eginkizuna.

***Bitartekotzaren eta arazoak konpontzeko funtzioak.** Batzuetan, araei, ikasteari, lanari nahiz egon daitekeen beste edozein arazori dagokienez, bitartekoen artean sor litezkeen arazoetan eta zailtasunetan laguntzea edo bitartekari gisa jokatzeari espero dugu orientatzaileengadik

2.2.2.2.- Ebaluazio-funtzioak.

Orientabidea hasi zenetik, ebaluatzeko prozesuak eta tresnak erabili izan dituzte orientatzaileek. *Orientabidearen eginkizunak eta aholku nahiz kontsultafuntzioak ulertzeko moduak baldintzatuko du zer ebaluatu, nola eta zertarako.*

Zuzeneko laguntza-funtzioak, egoera bat konpontzeko laguntza-funtzioa nagusitzen bada, eginkizun erabakigarria du pertsona zehatz baten arazo-eremua arakatzeari; estandarizatutako proben erabileran –Diagnostiko tradizionalak eta eredu klinikoak– oinarritzen da, batik bat, funtzio hori.. Orientatzailearen aholkulari-funtzioa nagusitzen bada, diagnostikoak, ziurrenik, oso bestelako eginkizuna izango du; hobetzeko programak –modu prebentiboan eta, gehienetan, taldekakoak –, eskaintzeko, garrantzi gehiago emango diote beharrak belioesteari kausak azaltzeari baino.

Aholkatzeko zereginei eta, ondorioz, Diagnostikoari, ekiteko moduan dauden aldaketa horiek agerian gelditzen dira hezkuntza-erakundeen esparruan (gardenkia: orientabidearen funtzioak) eta arautu gabeko testuinguruetan. Bestalde, ez dugu ahaztu behar bi funtzioak elkarren osagarriak eta beharrezkoak direla. Zenbaitetan, banakako plangintza eta laguntza beharrezkoak izango dira, hezkuntza bereziko programak behar dituzten ikasleentzat, esate baterako. Beste batzuetan, aldiz, beharrezkoa izango da diagnostiko bat egitea psikopedagogiako esku-hartzea nahiz taldeko programa bat abian jarri aurretik .

Banakako nahiz taldeko ebaluazioa egiteko testak kudeatzeaz eta administratzeaz gain, ebaluaziorako funtzio garrantzitsu gehiago ere badaude.

lido horretatik, *giroaren ebaluazioaren* eginkizuna azpimarra daiteke (taldeko giroaren balioestea, familiako testuingurua, erakunde-giroa...). Ebaluazioaren beste alderdi garrantzitsu bat *beharrak zehaztea da, lanaren lehentasunak eta programa hezigarriak zehaztea, prebentzio moduan, laguntzeko ikuspegi batetik, batez ere*. Esate baterako, irakasleei eska diezaiekegu zerrenda ireki batean, urtean zehar landu beharreko gaiak azpimarra ditzatela. Gainera, zerrenda hori osatu ahal izango dute iradokizunak eginez ("Gaineratu egoki irizitakoak (ikasteko zailtasunak, ikasgela gobernatzea, ikasteko teknikak, Hezkuntza Berezia arautzea, ordenagailuak ikasgelan, buru-hilketa aurrez ikustea, komunikatzeko trebetasunak, krisiak konpontzea,...Bestelakoak...Informazioa aurkeztea edo honetan..... laguntzea gustatuko litzaidake"). Azkenik, aurrera eramaten ditugun *zerbitzuak, programak eta jarduerak ebaluatzea* beharrezkoa da.

2.2.2.3.- Errazteko eta koordinatzeko funtzioak

Aholkularitza- (banakakoka nahiz taldekoa) nahiz kontsulta-funtzioez (informazioa, prestakuntza, bitartekaritza) eta ebaluazio-funtzioez gain, orientatzaileak, profesionala den aldetik, prebenitzeko eta hobetzeko balio duten prozesuak errazteko eta koordinatzeko funtzioa du; horrela, topaketak erraztu eta jarduerak koordinatuko ditu. Azken batean, giro osasungarria garatzeko eragile moduan aritzea da hori.

Orientatzailek eskatzen dizkiogun funtzio guztiak behar bezala bete ditzan, erabat beharrezkoa da prestakuntza zabala izatea hainbat arlotan.

- Laguntzari eta prestakuntzari buruzko ezagutza teknikoa, trebetasun soziopertsonaletan (komunikazioa, gatazkak konpontzea...)
- Prestakuntza, orientabidearen ikuspegi eta teorietan, gizakiaren garapen ebolutiboan eta taldeko prozesuen ezagutzan
- Ebaluazioari buruzko ezagutzak; hautaketari eta erabilerari dagokienez (analisi eta interpretazioa) estandarizatutako probei buruzkoak eta

estandarizatuak ez diren probei buruzkoak (behaketa, elkarrizketa, idazlana, role-playing... eta abarren tekniketan oinarrituz).

3.- Zer da Hezkuntza eta Gizarte Orientazioa

" beharrak identifikatzeko prozesua da orientazioa, eta bai halaber behar horiek asetzeko *estrategiak eta zerbitzuak diseinatzea*, eta jendeak erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, kontzientzia hartzeko eta bizitza osasungarriagoa izan ahal izateko ekintza-planak garatzen laguntzea ere. Garapena eta hazkuntza galarazten dituzten egoera negatiboak aurrez ikusten laguntzeko ezartzen dira, batzuetan, harreman horiek.. Beste batzuetan, egiten ari diren aurrerapena balioesteko eta garapena mantentzea ziurtatuko duten *estrategiak planifikatzeko ezartzen dira harreman horiek*. Bada hirugarren harreman mota bat ere, zeina jendeak zailtasunak dituen eta besteen laguntzarik gabe arazo horiek konpon ezin daitezkeenean ezartzen baita. Laburbilduz, orientatzeko harremanak aurrez ikusteko, garatzeko eta konpontzeko ezartzen dira"

Psikopedagogiako orientatzailearen *lan-esparrua oso zabala* izan daiteke; hain zuzen, psikopedagogiaren lanbide-esparrua bezain zabala. "... lanbide-eremua *ez da eskolara eta eskola-hezkuntzara mugatzen*. Hezkuntza-prozesu guztiak, gertatzen diren erakunde-testuingurua edozein dela ere –eskola-erakundea, familiak, enpresak, helduentzako ikastetxeak, prestakuntza- eta trebakuntza-zentroak, lan- eta erkidego-elkarteak, dibertimendu-zentroak, komunikabideak, eta abar-, psikopedagogian diharduten profesionalen jarduera-eremuan sar daitezke" . *Hala ere, orientabidea eta diagnostikoa funtsean eskola-erakundeen barruan egitea erraztu du hezkuntza-legeriak.*

Bibliografia

- Alvarez Rojo, V (1998). Metodología de la orientación educativa. Sevilla: Alfar
- Bataloso, J.M (2011). Dimensiones de la Orientación Educativa. Malaga: Aljibe
- Bisquerra, R (1992). Orientación psicopedagógica para la prevención y el desarrollo. Barcelona: Boixerau
- Bisquerra, R (coord. 1998). Modelos de Orientación e Intervención Psicopedagógica. Barcelona: Praxis
- Dinkmeyer, (1984). Developing understanding of self and others. New York: McGraw
- Dougherty, A-M y Dougherty, L (1989). Using your school counselor as an organizational consultant. American middle school education, 12 (3), 37-44
- Faust, N (1968). The counselor consultant in the Elementary School. Boston: Houghton
- Garcia, L y Codes, M (2003). Orientación Educativa en la familia y la escuela. Casos resueltos. Madrid: Dykyson
- Gysbergs, N.C (1990). Major trends in career development. Theory and practice. Largo
- Peeks, B (1993). Revolutions in counseling an education: a system perspective in schools. Elementary School Guidance and Counseling, 27, 245-251
- Sanchez, M.F (2010). La Orientación en España. Revista REOP, 21, 231-239